



PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera
jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

BERTARATU EZ DIRENAK

Susana Martín Benavides and.

Josu Artetxe Arana jn.

Iraida Saenz de Lafuente and.

IDAZKARIA

Mª del Carmen Rojo Pitillas and.

AIARAKO UDALAK 2018ko EKAINAREN 25ean

EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazortziko ekainaren hogeita bostean, zortziak eta hogeita hamazortzi direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Neuk, Mª del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

Alkate jaunak ongietorria egin die eta, besterik gabe, ohiko bilkurako gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko maiatzaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.-

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du botazioek eta bertaratutakoen zerbakiak ez dutela bat egiten.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du horren arrazoia dela Susana Martín zinegotzi andrea saiora berandu batu zela.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du aktan labur-labur jasota dagoela etxeko laguntza zerbitzuari buruzko eztabaida, eta gehitu nahi duela zerbitzua emateko bide gehiago daudela, hitzarmenean adostutakoaz aparte. Adierazi du adibidez Kuadrillaren bidez egindako kudeaketa zuzena proposatu ahal dela eta horrek kudeaketa hobetuko lukeela.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du, HAPOn dokumentazioaren eskariari lotuta, ez dela jasota geratu berak galdetu zuela ea dokumentazioa eskaneatuta zegoen edo ez sarrera erregistroan, eta ez zela erantzun noiztik aldatu zen legea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du korporazioko idazkaritza dela arduraduna datu pertsonalak modu zuzenean kudeatu eta babesteko, eta berak adierazi zuela existitzen ziren datu pertsonalak bereizi gabe eskaneatzeak arazo bat sorraraz zezakeela eta berak egin ziola kontsulta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Hernando jaunak (EH-BILDU) adierazi du honakoa aieruz esan duen pertsona bat dagoela Udalbatzan: HAPOn iradokizunak banatu zirenean, haiek (EH-BILDU) udalean zeudela, eta hori ez da egia. Beraz, ez dago ondo.

Taldeko kideak (EH-BILDU) adierazi dute aktaren alde bozkatuko dutela haiek egindako oharrak biltzen badituzte.

Parte-hartzeak bukatu dira, eta bertaratutakoek aho batez onartu dute aipatutako akta.

2.- Honako obra gehitzeko eskaria: “ Luaiondoko Barrena kalea berritzea: aparkalekuaz, mugikortasun hobekuntzaz eta aisiarako lekuaz hornitzea”, LEADER programaren barruan. Jarraian korporazioan puntu horren aldeko ebazpenaren berri eman da. Ebazpen hori Hirigintza-Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak onetsi du, 2018ko ekainaren 12an eginiko ohiko saioan.

Alamillo Udaeta alkate jaunak (eaj-pnv) adierazi du bilera edukiko duela hilaren bian 19.00etan, eta proiektua bizilagunei azalduko diela, zerbait gehitu nahi badute, aukera edukitzeko.

Korporazioa jakinaren gainean geratu da, eta aho batez honakoa onartu da, ohiko bozketan:

Laguntzea Leader eremuan dauden udalerrien sustapenari, garapenari eta dibertsifikazio ekonomikoari bideratutako laguntzen deialdian. Azken hori Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren barruan onartu da, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren apirilaren 24ko aginduari jarraikiz (BAOren 87. zenbakia, 2018ko maiatzaren 8koa), eta honako hau eskatu du: **“LUAIONDOKO BARRERA KALEA BERRITZEA: APARKALEKUAZ, MUGIKORTASUN HOBEKUNTZAZ ETA AISIARAKO LEKUAZ HORNITUZ”**

3.- Etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua.Jarraian, Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2018ko ekainaren 12ko ohiko bilkuran onartutako ebazpena erreferentzia egin zaio.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du haiek abstenitu zirela eta galdetu du ea falta zen memoria ekonomiko-finantzarioa ez onesteko egon beharko.

Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du gai hori eguneko aztergaien zerrendako hurrengo puntuari lotuta dagoela, baina, hala ere, memoria ekonomiko-finantzarioa txostenean dagoela eta bertara erraz sartu ahal direla eta Eudelek igorri zuela.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) honako hau adierazten jarraitu du: haiek abstenitu ziren lehenago proposatu zituzten hainbat hobekuntza gehitu zirelako. Hala ere uste dute hobetu daitekeela, hobetzeko tartea dagoela eta langileek autonomia handiagoa eskatzen dutela. Adierazi du posible dela emaitza hobeak lortzea, adibidez Hernanin gertatu den bezala.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du kudeaketa aginduaren bidez eskuordetzen dela aginpidea Aldundian, eta uste duela hobe izango litzatekeela eskualde kudeaketa Udalarekiko hurbilagoa izateagatik. Gehitu du Kuadrillari eskumen gehiago eman behar zaizkiola.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du kudeaketa modu hori erabiltzeko erabakia hartu baino lehen, beste batzuk aztertu behako zituztela, udal-mailan egitea zaila ikusi den arren; eta kuadrilla mailan guztien artean asko landu beharko litzatekeen gaia da, eta ez du erraz ikusten kuadrillak ez duelako oso ondo funtzionatzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du udal bakoitza erabaki ezberdinak hartzen ari dela haren autonomiaren jardutean eta horrek eskualde kudeaketa zailtzen duela.

Esku-hartzeak bukatu dira eta honakoen aldeko bozkarekin: Iñigo Pinedo Vadillo jn. (EAJ-PNV), José Antonio Bartolomé Pesquera jn. (EAJ-PNV), Montserrat Angulo Solloa and.

(EAJ-PNV), Iratxe Parro Uzquiano and. (AIARA BATUZ) Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna (EAJ-PNV), eta honakoen abstentzioarekin: Lauren Uria Peña jn. (EH-BILDU), Nerea Goti Valle and. (EH-BILDU) y Esteban Hernando Landa jn. (EH-BILDU), erabaki hau hartudute:

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea Aiarako Udal honetako etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua. Honakoa dio:

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZENDUEN UDAL ERREGELAMENDUA

1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedea da Iruña Okako udalerrian etxekolaguntzazerbitzuaren prestazioa arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Araudi honetan arautzen den zerbitzua Iruña Okako udalerrian garatuko da.

3. artikulua. Etxekolaguntzazerbitzuaren definizioa

Etxekolaguntzazerbitzuaprebentzio eta laguntza izaeradun zerbitzu bat da; helburua erabiltzaileari laguntza ematea da, bere etxean jarrai dezan, etxean bertan ondo moldatzea eta komunitatearen ingurunean integratzea posible egingo duen laguntza emanez, hain zuzen ere, isolamendu egoerak saihestuz.

4. artikulua. Etxekolaguntzazerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen helburuak honako hauek izango dira:

a) Autonomia pertsonalamantentzea edo hobetzea, egoera larriagotzeaprebenitzea eta erabiltzaileen autonomiaren galera konpentsatzea, laguntza partziala edo osoa emanez, eguneroko oinarrizko jarduerak, zaintzarako beharrezkoak diren jarduerak edo eguneroko bizitzaren jarduera instrumentalak egin ahal izateko.

b) Bideragarria denean, pertsonak bere etxeanjarraitzeaahalbidetzea ahalik eta gehien, onargarria den bizi kalitateari eutsiz eta ostatu zerbitzu batean edo egoitza batean sartzea atzeratuz edo ekidinez.

c) Erabiltzaileen segurtasun sentimendua sendotzea.

d) Erabiltzaileari laguntzeko gizarte eta familia sarea osatzen duten zaintzaileelaguntzaeskaintzea eta haien arreta zereginaren liberazio partzialaahalbidetzea, haien garapen pertsonal, profesional eta sozialari begira egokiak diren baldintzak izan ditzaten.

e) Zaintzaile nagusia, erabiltzailea zaindu ohi duen zaintzailea, tarteka ordezte, aldi batean ez badago.

f) Beste zerbitzubatzen esku-hartzea behar duten premia egoerak antzematea.

g) Erabiltzailea komunitatearen ingurunean integratzea erraztea, isolamendu edo bazterketa egoerak saihestuz.

h) Adingabeen zaintzaosatzea, ezinezkoa baldin bada gurasoek edo tutoreek zaintza modu egokian ematea.

i) Familien bizikidetzeta giroa hobetzea krisi egoeran, faktore psiko-fisiko edo gizarte faktoreek eragindakoak eta horien ondoriozko arriskuak saihestea.

BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUKO ETA ZERBITZUTIK KANPOKO PRESTAZIOAK ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. Zerbitzuko eta zerbitzutik kanpoko prestazioak

5.1. Honako prestazio hauek zerbitzuaren barruan daudela ulertuko da:

I. Argibideak: erabiltzaileek eskubide eta zerbitzuari buruzko aski ezagutza egokia garaiz eta dagokion gisan jaso ahal izatea ahalbidetzea.

II. Jarraipenaren balorazioa: arreta pertsonalizatuko planaren aldizkako ebaluazioak egitea, sakontasun maila handiagoarekin edo txikiagoarekin.

III. Etxeko arreta: prestazio honen bitartez pertsonelaguntzajasetzen dute, laguntza partziala edo erabatekoa, egunerokotasuneko jarduera instrumentalak egiteko, bereziki elikadurari, janzteari eta bizi diren etxebizitzako instalazioen mantentze lanei lotutakoak; hala, antolamendua ere erraztu egiten da, eta, hala badagokio, lanok egiteko beharrezko trebetasunak entrenatzea ere jaso ohi da.

a) Elikadurari lotutakoak:

- Laguntzea janaria prestatzen / janariak planifikatzen eta prestatzen, erabilitako elementuak bildu eta garbitzea barne.

- Elikagaiak erostea.

- Erabilitako tresnak garbitzea eta lehortzea.

b) Janzteari lotutakoak:

- Laguntzea arropa etxean garbitzen / arropa etxean garbitzea.

- Arropa esekitzea.

- Arropa birpasatzea.

- Arropa antolatzea eta gordetzea.

- Arropa etxean lisatu eta doblatzea.

- Laguntzea arropa erosten / arropa erostea.

- Erabilitako elementu guztiak prestatzea eta gordetzea.

c) Etxebizitzako instalazioen mantentze lanei lotutakoak:

- Etxea ordenatuta izatea.

- Azalerak produktu egokiekin garbitzea.

- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea.

- Hautsa kentzea.

- Lurra urez garbitzea eta xurgagailua pasatzea.

- Gortinak eta leihoak irekitzea, aireztatzea.

- Komuna garbitzea.

- Sukaldea garbitzea.

- Leihoetako kristalak garbitzea.

- Gainbegiratzea eta zarama jaistea.

- Ohea egitea eta oheko arropa aldatzea; oheko arropa zikina kentzea.

- Jabeen erkidegoaren espazioak garbitzea.

IV. Arreta pertsonala: prestazio honen bitartez, erabiltzaileek egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza jasotzen dute, ingurunearekin lotura izateko jarduera instrumentalak egiteko laguntza eta familia eta komunitatearen ingurunera sarbidea izateko laguntza, laguntza partziala edo erabatekoa. Bideanbar, jarduera horiek egiteko beharrezko tresnen entrenamendua ere jasoko da.

- Garbiketa eta higiene pertsonala, arropa pertsonala eta oheko arropa aldatzea barne (laguntza teknikoak erabiltzea barne, hala badagokio, atzazalak zaintzea, bizarra moztea, ilea garbitzea, azala hidratatzea, ahoko higiena eta arropa aldatzea).

- Arropa janzteko eta erantzeko laguntza.

- Eguneroko arropa prestatzea.

- Jateko laguntza.

- Edateko laguntza.

- Janaria berotzea.

- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea, bai garbiketa eta higiene pertsonalean erabilitakoak, bai jaten eta edaten laguntzeko erabilitakoak.

a) Mugitzeari eta ingurunean moldatzeari lotutakoak:

- Altxatzeko, ohean sartzeko eta jarlekutik altxatzeko laguntza, laguntza teknikoak erabiliz, hala badagokio.

- Etxe barruan mugitzeko laguntza, laguntza teknikoak erabiliz, egonez gero (komunera joateko laguntza, logelen artean mugitzeko laguntza).

b) Osasunari eusteari lotutakoak:

- Sendagileak adierazitako aho bidezko sendagaiak erostea, gainbegiratzea eta hartzearen jarraipena egitea.

Oro har, aurreko betebeharren ondoriozko edo horietatik eratorritako elementu edota jarduketak prestatzeko alde aurreko jarduketa guztiak.

V. Akonpainamendu soziala: prestazio honen bitartez, erabiltzaileak, langile kualifikatu batekin elkarrekintzan, harreman lagungarri batean parte hartzen du; horri esker, pertsona horren gizarte integrazioa eta modu autonomoan moldatzea hobetzen da.

- Akonpainamendua izaera pertsonaleko kudeaketa lanetan, aski familia babes ez dagoenean.

- Hitzordu medikoak kontrolatzea eta jarraipena egitea, aski familia babes ez dagoenean.

- Akonpainamendua etxetik kanpoko joan-etorrietan, baina beti etxe inguruan (garraioa, eguneko zentroak, osasun zentroak, komunitatearen ekipamenduak, etab.).

VI. Beste jarduketa osagarri edo salbuespen jarduketa batzuk:

Inguruabar bereziei erreparatuz, eta izaera murriztailearekin, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotako beste jarduketa batzuk ere eskaini ahalko dira:

- Zaintzaileen atsedena.

- Ibilaldiak.

- Garbiketa lan orokorrak etxeetan, zerbitzu normalizatua ezarri aurretik higiene arazo larriak egonez gero.

- Inguruabar bereziei erreparatuz, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotako beste jarduketa batzuk ere eskaini ahalko dira:

5.2. Honako prestazio hauek zerbitzutik kanpo daudela ulertuko da:

- Etxe berean bizi diren beste pertsonabatzuei zuzendutako laguntza pertsonala, prestazioaren erabiltzaileak ez badira.

- Etxeko laguntza jarduketak, etxean lan horiek egiteko gaitasuna daukaten pertsonak bizi direnean.

- Osasun izaerako jarduketak, jarduketa horiek egiteko langileek berariazko prestakuntza behar badute (injezioak jartzea, zundak erabiltzea, ultzera eta eskara tratamenduak eta medikazioa ematea, horretarako ezagutza zehatza eta pareko beste batzuk beharrezkoak badira).

- Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (margotzea, papera jartzea, etab.).

- Lehen atalean edo 6) atalean aipatu ez diren garbiketa lanak.

- Zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean aurreikusi ez diren lan guztiak; beste administrazio batzuen eskumenen barruan dauden betebeharrak.

6. artikulua. Etxekolaguntzazerbitzuaren ezaugarriak

Etxekolaguntzazerbitzua, oro har, onuraduna bizi den etxean emango da, Iruña Okako Udalerriaren barruan.

Onuraduna familia barruko txandakatze egoeran baldin badago, zerbitzua etxe batean edo gehiagotan eman ahalko da, araudi honen 9.1 artikuluan aurreikusitako inguruabarretan.

1) Arreta emateko egunak.

- Oro har, zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, preskripzio teknikoaren arabera.

- Arreta pertsonaleko betebeharrak mugatuta, zerbitzua asteburu eta jaiegunetan ere eman ahalko da, balorazioaren arabera.

- Ofizialki Eusko Jaurlaritzak hala aitortutakoak hartuko dira jaiegun gisa.

2) Zerbitzuaren intentsitatea.

Zerbitzuaren prestazioaren denbora mugak erabiltzaileen beharrezkoen banakako ebaluazioaren arabera ezarriko dira.

Gutxieneko prestazioa astero 30 minutukoa izango da. Gehieneko prestazioa hogeitauko izango da astean; artikuluko honetako bigarren paragrafoko 1) puntuan jasotako salbuespen kasuetan 28 ordukoa izan ahalko da. Gehieneko kopuru hori malgutasun handiagoz

bana daiteke, irizpide profesionalaren arabera beharrezkotzat jotzen bada erabiltzaileatxeangeratzea ahalbidetu edo erraz dezaketen zaintza lanak osatzeko edo ordeztuko.

3) Arreta ordutegiak.

Zerbitzuaren ordutegi orokorra malgua da, eta oro har 07:30etik 21:30era artean garatuko da.

Salbuespen izaerarekin zerbitzuaren ordutegia zabaldu ahalko da ezarritako orduetatik haratago, balorazio teknikoaren arabera.

- Laguntza pertsonalaren prestazioan, ordutegia ezartzerakoan eskatzailearen beharrianak eta ordutegi ohiturak aintzat hartuko dira.

- Etxeko laguntza eta akonpainamendu sozialaren prestazioetan, ordutegiak zerbitzuak egiten dituzten langileen ordutegi eskuragarritasunaren arabera ezarriko dira.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILAK

7. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea

Oro har, zerbitzu honen erabiltzaileen profilari dagokionez, ohiko etxebizitzan bizi jarraitze aldera egunerokotasuneko oinarrizko jardueretan laguntza-zerbitzuak aldi batez edo modu iraunkorrean esku hartzea beharrezkoa daukaten pertsonen edo senide taldeen profila da, autonomia galdu edo zaurgarritasun egoeran egotearen ondorioz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren testuinguruan, etxekolaguntza zerbitzua eskubide subjektibo gisa aitortuta dago eta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezarri bezala, mendetasun egoeran eta mendetasun arriskuan dauden pertsonen zuzenduta dago (MBBko 23 eta 24 puntu artekoa).

Horrez gain, honako pertsona edo senide talde hauek etxekolaguntza zerbitzuaren hartzailak izan ahalko dira:

- Egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar duten eta autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak.

- Egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar duten eta autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak.

- Adingabeak, ezinezkoa baldin bada haien familiek behar duten arreta eta zaintza ematea.

- Pertsonak edo senide taldeak, gehiegizko kargak badituzte, harreman gatazkak badituzte, gizarte egoera ezegonkorak edo gaixotasun fisiko edo psikikoen ondoriozko arazoak badituzte, egunerokotasuneko edozein jarduera egiteko laguntza (partziala edo erabatekoa), gainbegiratzea edo babes behar badute.

- Gaixotasun terminala daukaten pertsonak, horren ondorioz hirugarren pertsona baten laguntza behar badute eguneroko jarduerak egiteko.

- Balorazio teknikoaren arabera zerbitzu honetatik arreta jasotzeko moduko egoera edo pertsona oro.

8. artikulua. Sarbide betekizunak

Lehenago aipatutako egoeraren batean egoteaz gain, eskatzaileak honako sarbide betekizun hauek ere bete beharko ditu:

8.1 Administrazio betekizunak:

Eskabide datan Iruña Okako udalerrian erroldatuta egotea, eta bertan erroldatuta jarraitzea.

Familiako txandakatze egoeran dauden pertsonak betekizun hauetatik salbuetsiko dira.

8.2 Beharrian betekizunak:

- a) Egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar izatea.
- b) Etxebizitza horretan biziitzea, etxeaerabiltzailearena izan zein zaintzaile nagusi gisa jarduten duen senide batena izan.
- c) Etxeak erabiltzailea bertan egotea ez eragozte eta nabarmen oztopatzea, eta pertsonarentzat berarentzat zein etxeko zerbitzuko langileentzat arriskurik ez eragitea.
- d) Beharrezkoa bada, etxekolaguntzazerbitzuaren prestazioarekin batera, aski babes izatea etxean baldintza egokietan jarraitzeko.
- e) Osasun erakundeetan edo osasun eta gizarte erakundeetan etengabeko laguntza behar duen osasun egoera ez izatea.
- f) Kasuan kasuko tratamenduari uko ez egitea, gaixotasun mental bat edo infekzio gaixotasun kutsakorra izanez gero.
- g) Jokabidearen nahasmendurik ez izatea, edo etxekolaguntzaileak arriskuan jar ditzakeen jokabiderik ez izatea.

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritakoaz gain, etxekolaguntzazerbitzuarenerabiltzaileek honako eskubide hauek ere izango dituzte:

- Banakako Arreta Programan ezarritako eduki eta intentsitateari egokitutako zerbitzua jasotzea, mendetasuna aitortuta daukaten pertsonen kasuan, baita Arreta Plan Pertsonalizatuan ezarritakoa ere, mendetasuna aitortuta ez daukaten pertsonen kasuan.
- Egitekoen programazioan parte hartzea.
- Egitekoen orriaren kopia bat izatea; bertan zehaztuko dira prestazioa arautzeko jarduerak eta ordutegi antolaketa (zerbitzuaren maiztasuna eta esku hartze bakoitzean emandako denbora).
- Zerbitzua iraungitzea edo etetea eta prestazioan aldaketaren bat eragin dezaketen inguruabarren berri izatea.
- Zerbitzua EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzea.

10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaz gain, etxekolaguntzazerbitzuarenerabiltzaileek honako betebeharrak hauek ere izango dituzte:

- Eskubidez dagokion duintasuna erabat errespetatuz tratatzea etxekolaguntzazerbitzuko langilea.
- Zerbitzu prestazioa aldi baterako etetea ekarriko duten gorabeherak edo inguruabarrak oinarrizko gizarte zerbitzuen erreferentziatzko gizarte langileari jakinaraztea, aski denboraz eta, betiere, gutxienez 24 orduko epean, egiaztatutako premiazko kausak salbu.
- Zerbitzua ematen duen enpresari eta oinarrizko gizarte zerbitzuen erreferentziatzko gizarte langileari zerbitzuaren prestazioan antzeman daitezkeen balizko anomalien berri ematea.
- Zerbitzuaren prezio osoa edo hobaridun prezioa ordaintzea, salbu eta prezio publikoa ordaintzean hobaria aplikatu behar bada gaitasun ekonomikoa dela medio, etxekolaguntzazerbitzuari aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituen udal araudian aurreikusitakoarekin bat etorritik.
- Zerbitzuaren prestazioan esku hartzen duten profesionalak errespetuz eta zuzen tratatzea, eta, posible denean, lana erraztea eta horrekin kolaboratzea.
- Zerbitzuaren prestazioan zehar sortutako infekzio gaixotasun kutsagarriak oinarrizko gizarte zerbitzuen erreferentziatzko gizarte langileari jakinaraztea, etxekolaguntzazerbitzuko langileentzat beharrezko babes neurriak hartze aldera.
- Etxekozerbitzuko langile laguntzailea zerbitzua ematen ari den bitartean etxean egotea, salbu eta berariazko baimen eta preskripzio teknikoak izanez gero.

- Esleitutako etxeko egitekoak eta egiteko pertsonalak osatzeko beharrezko materialak eta baliabideak etxekozerbitzuko langileen esku jartzea.

- Gizarte eta ekonomia egoeran aldaketa nabarmenen bat sortuz gero, aski denboraz jakinaraztea gizarte zerbitzuei, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan.

- une bakoitzean zerbitzua ematen duen profesionalari gainbegiratu beharreko medikazioari buruzko azalpen argi eta eguneratuak ematea.

Artikulu honetan ezarritako betekizunak betetzeko komunikazioak, informazioak eta gainerako betekizunak berariaz zuzendu beharko dizkio erabiltzaileak kasuan kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuko erreferentziazko profesionalari.

Betebehar hauetakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo iraungitzeko prozedura abiaraziko da, araudi honetan araututako prozedurarekin bat etorritik.

III. KAPITULUA. SARBIDE PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEEN ZERRENDA SARBIDEA IZATEA

11. artikulua. Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzua esleitzeko ordena ezartzen duen tresna zerbitzuko eskatzaileen zerrenda da, eta sarbide baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera antolatzen da (I. eranskina).

Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskatzaileen zerrendan jasotako pertsonen espedientea berrikusteko eskatu ahalko dute, behar bezala egiaztatuz, inguruabar pertsonalak aldatzearen ondorioz jasotako balorazioa alda badaiteke.

12. artikulua. Zerbitzueskatzaileen zerrendara sarbidea izatea eskatzea

Araudi honetan araututako etxekologuntzazerbitzuaren eskatzaileen zerrendara sarbidea izateko interesdunak aldeztu aurretik eskaera egin behar du horretarako prestatutako inprimaki normalizatuan; eskaera erakunde eskudunera igorri beharko da, eskatzaileak sinatuta eta udalak horretarako gaituta dituen edozein erregistrotan edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusi bezala aurkeztuz.

Prozesuaren edozein unetan interesdunak bertan behera utz dezake eskaera; hala gertatuz gero, idatziz egin beharko du. Hala jokatuz gero, espedientea artxibatu egingo da.

Bidenabar, gizarte langileak espedientea artxibatzeko txostena eman ahalko du eskatzaileak edo horren ordezkariak idatziz eta berariaz uko egin badiu.

13. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatutako zerbitzuak etxekologuntzazerbitzuak egitea barne hartzen badu edo adingabeak zaindu behar dituzten familiei arreta ematera bideratuta badaude, dokumentazioa eskatzailearen ezkontideari edo izatezko bikotekideari buruzkoa eta etxebizitzan bizi diren gainerako pertsonen buruzkoa ere izan beharko da.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia, edo pareko beste edozein identifikazio dokumentu baliokide.
- Familia liburua, bizikidetzaren unitatean 18 urtetik beherakoak baldin badaude.
- Hala badagokio, mendetasun edo ezintasunaren balorazioa, balorazioa beste autonomia erkidego batean egin bada.

- Txosten medikoa, osasun arazoak izan eta mendetasun edo ezintasunaren balorazioa eskatu behar ez duten pertsonen kasuan.

- Zaindu beharreko pertsona adingabea bada edo ezintasunen bat badu, legala edo izatezkoa, ordezkariaren egiaztagiria (adingabea: familia liburua, guraso eta seme-alaben

neurrien dokumentua edo tutore izendapena; ezintasunen bat daukaten pertsonak: tutorea esleitzeko epaia edo zainzaile dokumentua, ereduari jarraiki).

- Egoera ekonomikoari buruzko datuak:
- Eskaera aurkeztu aurreko lau urteetako ondasun higiezin eta higigarrien gaineko zinpeko adierazpena.
- Pertsona fisikoen errentaren zergaren azken aitorenaren fotokopia, edo, bestela, aitoren egiteko betebeharrak ez dagoela dioen Ogasuneko ziurtagiria (azken hori ez da beharrezkoa izango aitortutako azken ekitaldian zergak Araban ordaindu badira).
- Gaur egungo diru sarreren egiaztagiria, edozein kontzepturi dagozkien diru sarreren: pentsioak eta gizarte aurreikuspen publikoko prestazioak, pribatuak edo atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren etekinak, etab.
- Kapital higiezinaren ondoriozko etekinen diru sarreren ziurtagiria, egonez gero.
- Banku posizio eguneratu guztien ziurtagiria, eta kapital higigarriko etekinak.
- Eskatzaileak Arabako lurraldetik kanpo dituen jabetzen titulartasuna eta katastro balioaren egiaztagiria.
- Ezarritako prezioa hilero ordaintzeko erabiliko den banketxea eta kontu korrontearen zenbakia.
- Gizarte zerbitzuen aburuz interesekoa izan daitekeen beste edozein agiri.

Eskatzaileak ez badu bere egoeraren balorazioa egiterik nahi edo ez badu fede emateko moduan argudiatzen, bere egoera ekonomikoa aintzat hartzeari uko egiten diola ulertuko da eta, horrenbestez, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaindu beharko du.

Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aipatutako agiriak aurkezteko betebeharrak izango agiri horiek dagoeneko administrazioaren esku baldin badaude. Hartara, interesdunek hizpide dugun agiria zein erakundetan eta noiz aurkeztu duten jakinarazi beharko dute. Udal edo foru gizarte zerbitzuek ezin badituzte aipatutako agiriak lortu, interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahaliko diote.

Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo akatsen bat badauka, eskatzaileari eskaera egingo zaio 10 eguneko epean beharrezko dokumentazioa aurkez dezan edo antzemandako akatsak zuzen ditzan; bidenabar, ohartaraziko zaio horrela jokatzeko ez badu eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitateko gainerako kideek baimena emango diete udalari eta Arabako Foru Aldundiari datuak egiaztatzea edo lortzeko egin beharreko kudeaketak egiteko. Datu horiek eskusiboki mugatu beharko dira eskatzaileak araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatzea eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baliabide ekonomiko eta betekizunak egiaztatzea.

Datuak ezkutatu edo faltsutzeak zerbitzu-eskatzaile izaera galtzea ekar dezake; nolana ere, baliteke bestelako erantzukizunak ere eragitea.

14. artikulua. Izapidetzea

Erabiltzaileen beharrezko ebaluazioa eta gizarte txostenaren proposamena egitean Gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean jasotako zehaztasunei erreparatuko zaie.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA.

- Eskatzailearen beharrezko ebaluazioa, balorazioa eta izapidetzea eskatzailearen etxebizitzari dagozkion udal gizarte zerbitzuen gizarte lan arloko teknikariek egingo dituzte (edo, hala badagokio, etxebizitza ibiltarikoak).

- Udal gizarte zerbitzuetako langile teknikariek dokumentazioa aztertuko dute eta egin beharreko kudeaketa eta jarduketara oro egingo dute honako alderdi hauek aztertzeko:

- Egunerokotasuneko oinarritzko jarduerak egiteko laguntza beharrianak, norbere burua zaindu, jaiki eta ohean sartu, jantzi, oinez ibili, jan, garbitu eta esfinterren kontrola edukitzeari lotutakoak.

- Egunerokotasuneko jarduera instrumentalak egiteko laguntza beharrianak, tartean elikagaiak erosi eta prestatzea, etxebizitza eta sukaldeko tresnak garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, dirua kontrolatzea, medikazioa kontrolatzea eta etxe barruko zein kanpoko joan-etorriak.

- Egoera sozio-familiarra, elkarrekin bizi diren pertsonen eta gizarte ingurunearekiko harremana aztertuz, familia eta gizarte sarearen gaitasuna eta eskuragarritasuna eskatzailearen arreta beharrianen aurrean erantzuteko.

- Etxebizitzaren egoera higie, ekipamendu, bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzei dagokienez, laguntza tekniko beharrianak eta ingurunean duen kokapena.

- Egoera ekonomikoa.

B) GIZARTE TXOSTENA-PROPOSAMENA

Udal gizarte zerbitzuetako gizarte laneko zerbitzu teknikoek Banakako Arreta Programa prestatuko dute, edo bestela, Arreta Plan Pertsonalizatua. Dokumentu horietan honako hau zehaztuko da:

- Zerbitzura sartzeko betekizunak eta eskabideak aurkezteko betekizunak betetzea.

- Hala badagokio, betekizunak betetzetik salbuesteko proposamena, argudiatua.

- Eskatzailearen inguruabar pertsonalak, familiakoak eta gizartekoak, eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitatearenak.

- Esku hartzearen onuradunak, egin beharreko zerbitzu mota, asteko egunak eta ordu kopurua, proposatutako zerbitzuaren iraupena eta egitekoak.

- Hala badagokio, salbuespen zerbitzuen proposamen argudiatua.

- Hala badagokio, zerbitzua ezesteko proposamen argudiatua.

15. artikulua. Ebazpena

Eskabidea aztertu eta baloratu ondoren, eta txosten soziala eman eta gero, dagokion proposamen teknikoa prestatuko da, eta erakunde eskudunera igorriko da. Erakundeak ebazpen argudiatua emango du, eskatutako zerbitzura sarbidea izateko eskaera onartuz edo ezetsiz.

Ebazpena gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da eskabidea udal erregistroren batean jasotzen denetik. Epe hori eten egingo da eskabideak zuzendu behar direnean, jakinarazpenetik betetzen den arteko tartean edo, bestela, emandako epea igarotzean edo Arabako Foru Aldundiaren nahitaezko txostena eskatu behar denean, eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruzkoa, baita Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik eman, eskabidea bertan behera utzi dela ulertu ahalko da, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztea baimentze aldera; nolana ere, ebazteko betebeharrak indarrean jarrai dezake.

Aldeko ebazpenak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Hala badagokio, eskatzaileaz zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan jasotzea.

- Prestazioa ematea, honako hauek zehaztuz: zerbitzuaren kostua, iraupena, mota eta intentsitatea, baita onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

- Halaber, ebazpen proposamenean adierazi behar da zerbitzua edo prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzaileak (eta, hala dagokionean, bere legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukanak ere) aitortzearen eragina izan dezakeen aldaketa oro 15 egun natural pasatu baino lehen jakinarazi behar diola erakunde eskudunari.

Aurkako ebazpenak horretarako arrazoiak azaldu beharko ditu, eta kasu hauetan eman beharko da:

- 8. artikuluan jasotako sarbide betekizunak ez betetzea.
- Eskatera eragin zuten beharrianak eskatzaileak berak edo senideen laguntzarekin edo beste baliabide pertsonal batzuekin zuzen betetzeko aukera.
- Zerbitzua ematea beste administrazio publiko baten eskumena izatea, prestazioaren izaera edo eskatzailearen bizilekua dela medio.
- Balorazioaren arabera zerbitzuak arrisku fisikoak edo psikikoak eragin ahal izatea, erabiltzaileari zein zerbitzua ematen duten langileei.
- Behar bezala argudiatutako beste kausa batzuk

Ebazpena legeak ezarritako formalitate eta epeetan jakinaraziko da, eta horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da erakunde eskudunaren aurrean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi ordena jurisdikzionalan aurkaratu ahalko da, lege ezarritako epe eta inguruabarretan.

Aldeko ebazpena ere zerbitzua eman behar duen erakundeari jakinaraziko zaio; zerbitzuaren prestazioaren kontratuan jasotako epean eman beharko du zerbitzua.

16. artikulua. Premiazko egoerak

Salbuespen gisa, eta muturreko eta premiazko beharrian kasuak artatu ahal izateko, udal gizarte zerbitzuek prestazioa berehala eman eta hastea proposatuko dute, eta premiazko prozeduraren arabera izapidetuko da.

Gizarte zerbitzuek, hala badagokie, zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko diote zerbitzua premiazkoa dela; erakundeak gehienez 48 orduko epean eman beharko du zerbitzua.

Gehienez 15 egun naturaleko epean eskabidea izapidetu egingo da, prozedura arruntarekin bat etorritik.

2. ATALA. ZERBITZUA JASO ETA EZ ONARTZEA

17. artikulua. Zerbitzua onartzea

Zerbitzuan onartzeko zerrendaren ordena jarraituko da, eta lortutako puntuazio globala hartuko da kontuan, Araudi honen I. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik eskabidea aztertu ondoren.

Puntuazio berbera lortu duten eskabideen kasuan, mendekotasunen bat eta mendetasun arriskuan dauden eskatzaileen eskaerak lehenetsiko dira (MBBko 23 eta 24).

IV. KAPITULUA. ZERBITZUA EGOKITZEA ETA JARRAIPENA EGITEA

18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa

Oinarrizko gizarte zerbitzuek etengabeko jarraipena egingo dute zerbitzua onuradunen beharrianetara egokitzen dela ziurtatzeko, beharrezko aldaketak proposatuz eta proposatutako helburuak lortzea onuradunekin batera ebaluatuz; hala, etxe bisitak egiteko premia aurreikusiko da, baita etxekolaguntza langileen aldizkako harremanak ere.

Aldizka ebaluazioak egin ahalko dira onuradunak eskatzen badu, zerbitzua ematen duen erakundeak eskatzen badu edo protokolo eta kontratuetan ezarri bezala.

19. artikulua. Egokitzapen aldia

Zerbitzura sarbidea izan eta hasierako hiru hilabeteetan erabiltzaileakzerbitzuaren funtzionamendu eta ezaugarrietara moldatzeko egokitzapen pertsonaleko aldi duela ulertuko da. Sor daitezkeen arazoak une oro komentatuko dituzte gizarte zerbitzuetako teknikariek edo zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalak eta ondo egokitzea lortzeko beharrezko irtenbideak bilatuko dira.

Erabiltzailearekin batera irtenbide bateratuak aplikatzen saiatu ondoren, erabiltzaileak zerbitzura egokitzeko zailtasunak dituela edo alderantziz gertatzen dela antzeman ez gero, edo zerbitzuak pertsonaren beharrezkoak zuzen betetzen ez dituela ulertzen bada, egoera aztertu egingo da eta oinarritzko gizarte zerbitzuen txostenaren aurreko proposamena egingo da.

Egindako proposamena erabiltzaileari jakinarazi beharko zaio, eta horrek 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko

Alegazioak aztertu ondoren behin betiko proposamena egingo zaio erakunde eskudunari, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du. Ebazpenaren arabera pertsona zerbitzutik kanpo utzi behar bada, alternatiba bat proposatuko da, egonez gero.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

20. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea

20.1. Zerbitzua aldi baterako etetea.

Dagokion espedientea izapidetu ondoren, erakunde eskudunaren ebazpenaren bitartez ezabatu da zerbitzuaren prestazioan aldi baterako etena egitea, interesdunari entzunaldi izapidea eskaini ondoren. Ebazpen hori erabiltzaileari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, zerbitzua ematen duen erakundeari.

Etxekolaguntza zerbitzua honako arrazoi hauengatik etengo da:

- Erabiltzailea ospitale batean egotea, aldi baterako.
- Erabiltzailea aldi baterako etxebizitzan ez egotea, gizarte baliabide eta osasun eta gizarte baliabide batera jo behar izan duelako.
- Etxebizitzan ez egotea azken zerbitzutik hasita laurogeita hamar (90) egun baino gutxiagoko tartean. Tarte hori egoera berezietan luzatu ahalko da. Erabiltzailea familiaren txandakatze egoeran baldin badago, tarte hori luzatu egingo da, txandakatze epeei dagokienez.
- Erabiltzailearentzat 10. artikuluan ezarritako betekizunen bat betetzen ez denean, iraungitze kausa ez denean.
- 8. artikuluan ezarritako betekizunen bat aldi baterako galtzea.

Horretarako, aldi batez etxebizitzan ez egoteagatik zerbitzua eteten denean, erabiltzaileek egoera hori idatziz eta gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez jakinarazi beharko dute, larrialdi egoeretan, premiazkoa izateagatik epe hori betetzea ezinezkoa denean salbu (behar bezala frogatu behar da).

Etxekolaguntza zerbitzua jasotzen duen pertsona batek aldi batez zerbitzua erabiltzeari uzten badio, etenaldiak ondoz ondoko zazpi egun natural baino gehiago irauten badu, ez du ordaindu beharko prezio publikorik. Horretarako, erabiltzaileek zerbitzua jasotzeari utziko diotela idatziz jakinarazi beharko dute, eta etenaldia hasi baino zazpi egun lehenago gutxienez, larrialdia dela eta ezinezkoa denean izan ezik (behar bezala frogatu behar da). Zerbitzua ondoz ondoko zazpi egun naturalez baino egun gutxiagoz erabili ez bada, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko da.

20.2. Zerbitzua iraungitzea.

Dagokion espedientea izapidetu ondoren, zerbitzuko bajak erakunde eskudunaren ebazpenaren bitartez ebatziko dira, interesdunari entzunaldi izapidea eskaini ondoren. Ebazpen hori erabiltzaileari eta zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko zaie.

Etxekolaguntzazerbitzua honako arrazoi hauengatik iraungiko da:

- Erabiltzaileak edo horren lege ordezkariak idatziz uko egitea.
- Zerbitzua emateko ebazpenean aurreikusitako prestazio aldia bukatzea.
- Erabiltzailea hiltzea.
- Erabiltzailea beste udalerrri batera joatea, familiaren txandakatze kasuak direnean salbu.
- Onuraduna etxekolaguntzazerbitzuarekin bateragarria ez den beste programa edo baliabide batean sartzea.
- Zerbitzuaren prestazioa sorrarazi zuen beharizan kausa desagertzea.
- Zerbitzua emateko aintzat hartu diren datuak faltsutzea edo ezkutatzea.
- Zerbitzua lortzeko eskatutako betekizunen bat modu iraunkorrean galtzea
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- Gizarte eta ekonomia egoera aldatzeari buruzko informazioa ez aurkeztea 30 eguneko epean.
- Aldi baterako etena bukatu ondoren etxebizitzara bueltatu ez izana.
- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.
- Araudi honetan erabiltzaileentzat aurreikusitako betebeharrak etengabe urratzeagatik (ordainagiriak epez kanpo ordaintzea, behin baino gehiagotan ez ordaintzea, etab.).
- Arrisku fisikoak edo psikikoak egotea erabiltzailearentzat zein zerbitzua ematen duten langileentzat, udal zerbitzu teknikoaren balorazioaren aurretik.
- Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.

Iraungipen ebazpenaren ondoren erabiltzaileak berriz ere zerbitzua jasotzeko asmoa agertuz gero, beste eskabide bat aurkeztu beharko du, eta araudi honetan ezarritakoaren arabera izapidetu beharko da.

Iraungi ondoren erabiltzaileak zerbitzuko zenbait ordainketa egin gabe baditu, berriz ere zerbitzua eman aurretik ordaindu gabeko kopuruak ordaintzeko eskatuko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

21. artikulua. Etxekolaguntzazerbitzuaren prezio publikoa

Erabiltzaileak ordaindu beharreko etxekolaguntzazerbitzuaren prezioa une bakoitzean indarrean dagoen zerga ordenantzak zehaztuko du.

Ez zerbitzua ematen duten langileek, ez enpresa adjudikaziodunak ez dute ordainketa osagarriarik edo dohaintzarik onartuko, aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain. Enpresa adjudikaziodunak betebehar hori betetzea zainduko du.

22. artikulua. Finantzaketa

Zerbitzuen finantzaketa hauen ardura izango da:

- Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, erakunde eskudunaren ebazpenean ezarritako kopurua ordaintzeko konpromiso sinatua onartuz, gaitasun ekonomikoari erreparatuz funtsezko betekizun gisa zerbitzuaren prestazioari ekiteko, eta kasuan kasuko zerga ordenantzak horri dagokionez ezartzen duenaren arabera.

- Orduko prezioari onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kentzeangeratzen den kopurua, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritakoaren arabera kalkulaturakoa, Administrazio Publikoak hartutako du bere gain.

23. artikulua. Zerbitzukoerabiltzailearen ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuenerabiltzaileakzerbitzuko prezio publikoa ordaindu beharko du, erabiltzailearen beraren gaitasun ekonomikoa aintzat hartuz kalkulatu dena, dagokion zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan.

Erabiltzailearen ekarpena kasuan kasuko zerga ordenantzan jasotako elementuen arabera finkatuko da.

Gaitasun ekonomikoen inguruko datuak faltsutzeak edo ezkututzeak eskabidea artxibatzea edo zerbitzuairaugitzea ekar dezake, zerbitzua dagoeneko emanda badago; nolana ere, baliteke gertaera horietatik bestelako erantzukizunak ere eratorzea. Administrazio eskudunak erabiltzaileari laguntzaren bat edo prezioan hobariren bat eman badio, itzultzeko prozedura abiaraziko da.

Erabiltzaile bakoitzaren banakako ekarpena berrikusi egin beharko da, ofizioz edo erabiltzaileak edo bere ordezkariak eskatuta, inguruabarrak edo betekizunak edozein modutan aldatzen direnean, kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Etxekolaguntzazerbitzuaren bitartez erabiltzailea etxean eta ingurune komunitarioan geratzea bultzatzen esperientzia, jarduera eta prestazio desberdinak eta berritzaileak jar daitezke martxan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudiaren laburpen bat prestatuko da, erabiltzaileei emateko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arlo honetako udal erakunde eskudunak irizpideen eskuliburu bat prestatuko du; bertan zehaztuko da erabiltzailebakoitzarenzerbitzuaren prestazio aldia, 7. artikuluko 2. atalean ezarritako mugen barruan, eta oinarritzko gizarte zerbitzuko profesionalek aplikatuko dute; erabiltzaileen esku ere egongo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira araudi honek xedaturikoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko mailako arau guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau ALHAOn argitaratu eta hamabosgarren egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

SARBIDE BAREMOA

Sarbide baremoak eskatzaileen zerrenda antolatzeke irizpideak eta zerbitzuajasetzeko lehenetsuna ezarri du, gizarte diagnostikoaren arabera.

Eskatutako zerbitzuakpertsone bati baino gehiagori eragiten badie sarbide baremoaren ondorioetarako, soilik arreta premiako egoera ahulenean dagoen eskatzailearen egoera hartuko da kontuan, egoera ekonomikoaren dimentsioan salbu; kasu horretan bizikidetzaren unitateko kide guztien hileko gaitasun ekonomikoa aztertuko da.

BAREMOAREN EGITURA

<i>DIMENTSIOAK</i>	<i>PUNTUAZIO TARTEAK</i>
Egunerokotasuneko jarduerak egiteko laguntza behar du (oinarrizko jarduerak)	<u>0-30</u>
Egunerokotasuneko jarduerak egiteko laguntza behar du (jarduera instrumentalak)	<u>0-10</u>
Gizarte laguntza eta bizikidetzako egoera	<u>0-30</u>
Ostatu edo etxebizitza egoera	<u>0-10</u>
Egoera ekonomikoa	<u>0-20</u>
Total	<u>0-100</u>

I.- EGUNEROKOTASUNEKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHAR DU (OINARRIZKO JARDUERAK).

Egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak egiteko behar duten laguntza maila aztertzean datza (jan, jantzi, garbiketa pertsonala, etab.), erabiltzailearen autonomia mailari eusteko eta sustatzeko eta bere ingurunean geratzeko, bizi kalitate maila onarekin.

Balorazioa egite aldera, MBBn lortutako puntuazioa erabiliko da, horrela:

<i>Laguntza beharrezana - BAREMOA</i>	<i>Puntuak</i>	
Balioztatu ezin daitezkeenak	0	<input type="checkbox"/>
MBB 0-22 puntu	5	<input type="checkbox"/>
MBB 23-49	10	<input type="checkbox"/>
MBB 50-74	20	<input type="checkbox"/>
BMBB 75-100	30	<input type="checkbox"/>
EGUNEROKOTASUNEKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRIZANAREN PUNTUAZIOA (OINARRIZKO JARDUERAK) (Gehienez 30 puntu)		<input type="checkbox"/>

II.- II. EGUNEROKOTASUNEKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEA (INSTRUMENTALAK).

Jarduera instrumentalak egiteko behar duten laguntza maila aztertzean datza (tresna elektrikoak erabiltzea, erosketak egitea, etab.), erabiltzailearen autonomia mailari eusteko eta sustatzeko eta bere ingurunean geratzeko, bizi kalitate maila onarekin.

Balorazioa egiteko baremo hau erabiliko da:

<i>Jarduera instrumentalak - BAREMOA</i>	<i>Puntuak</i>	
Tresna elektrikoak erabiltzea (garbigailua, mikrouhin labea, sukaldea, berogailua) eta interkomunikazio sistemak (irratia, telefonoa, telebista)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Etxeko lanak (hautsa kentzea, erratzarekin garbitzea, ontziak garbitzea, ohea egitea, oheko arropa aldatzea, lisatzea, xurgagailua pasatzea, etab.)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Erosketak (elikagaiak, medikazioa, arropa, tresna elektrikoak erostea, etab.)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Elikagaiak prestatzea (janaria prestatzea, prestatutakoa berotzea)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 1	<input type="checkbox"/>
Ingurunean ondo moldatzea (garraio publikoa erabiltzea, udalerrian egunez/gauzez orientatzea)	BAI: 0	<input type="checkbox"/>
	EZ: 3	<input type="checkbox"/>

Kudeaketa ekonomikoak, administrazioak eta osasun arlokoak (dirua ateratzea, ordainagiriak kudeatzea, medikuarenera joatea, etab.)	BAI: 0	
	NO: 3	
EGUNEROKOTASUNEN JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (JARDUERA INSTRUMENTALAK) (Gehienez 10 puntu)		

III.- GIZARTE LAGUNTZA ETA BIZIKIDETZA EGOERA.

Beharrianak estaltzeko erabilizaileak duen laguntza mailaren berri izatean datza, aldagai hauen arabera:

- *Bizikidetza egoera: bakarrik edo beste norbaitekin bizi den. Beste nagusi batzuekin (senideak edo lagunak) edo beste lagun edo senide batzuekin batera bizi den..*

Sare informala izatea, eskuragarri izatea eta irisgarritasuna (senideak edo lagunak) eta sare horrek emandako babes motak

Balorazioa egiteko baremo hau erabiliko da:

Gizarte eta familiaren BAREMOA	Puntuak	
1.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, edo babesgabetasun/abanduru egoeran dauden adingabeak: tratatu txar fisiko edo psikikoen egoera, abusu ekonomikoa, abandonu egoera eta oinarritzko arretako arduragabekeria larria.	30	
2.- Gizarte edo familiaren laguntzarik gabe bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona: horrelakorik ez duelako, edo ohiko zaintzaileak ezin diolako arretarik eskaini arrazoi objektibo bat dela medio, edo familia desegituraketa larria edo gatazka arriskua dagoelako. / Arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiak.	25	
3.- Bakarrik bizi den pertsona, gizarte edo familia babes sare oso txikia duena; behar duen arretari dagokionez, ematen dioten babes puntuala ez da aski. / Karga gehiegi edo gizarte egoera ezegonkorak dituzten familiak.	15	
4.- Bakarrik bizi den pertsona (edo ezintasun edo desgaitasunen bat daukan pertsona batekin), gizarte edo familia babes sarea du, babesa ematen diona, baina ez da aski behar duen arretari dagokionez.	10	
5.- Beste norbaitekin bizi den pertsona (mendetasunik gabeko pertsona), gizarte edo familiaren babes sarea duena, baina ez da aski behar duen arretari dagokionez.	5	
6.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, sarbide errazeko eta eskuragarri dagoen gizarte edo familiaren babes sarea duena	0	
GIZARTE ETA FAMILIA MAILAKO EGOERAREN PUNTUAZIOA (Gehienez 30 puntu)		

IV.- OSTATU EDO ETXEBIZITZA EGOERA.

Ostatu edo etxebizitzaren ezaugarriak aztertzean datza, baldintzagarri izan daitezkeelako erabilizailea modu autonomoan moldatzeko, ingurunea kontrolatzeko, aukeratzeko gaitasunean, baita bertan laguntza edo babesa jasotzeko ere.

Aintzat hartu beharreko aldagaiak irisgarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua dira, baremo honen arabera:

BAREMOA Ostatu edo etxebizitza egoera			
IRISGARRITASUNA			Puntuak
A. <i>Eraikinaren kanpoaldea</i>	➤ Ez du sarbide arazorik.		0
	➤ Eskailerak jaitsi edo igo behar ditu edo arkitektura oztoporen bat gainditu etxebizitzara iristeko // Hirigunetik urrun dago, oinarritzko baliabideetara iristeko zailtasunekin		1
B. <i>Eraikinaren barruan</i>	➤ Ez du sarbide arazorik.		0
	➤ Atarian eskailerak ditu igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago eskailerak saihesteko sistemarik. // Ez du igogailurik		1
C. <i>Etxebizitzaren barrualdea</i>	➤ Ez dago arkitektura oztoporik.		0
	➤ Arkitektura oztopoak daude, mugikortasuna eta ondo moldatzea oztopatzen dute; ez dago egokitzapen edo segurtasun neurririk		2
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+B+C)			

BIZIGARRITASUNA			Puntuak
➤ Ez du bizigarritasun arazorik			0
➤ Ez da mantentze lan zuzena egin.			1
➤ Egitura arazoak ditu (hezetasuna, sukaldetik, komunik ez; espazio gutxi; itoginak; instalazio elektriko eta komun instalazio eskasa)			3
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA			

EKIPAMEN DUA			Puntuak
	BADAGO	BADABIL	
Sukaldea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Berogailua/termoa/galdara	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Berokuntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Garbigailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Hozkailua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Telefonoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
➤ Oinarritzko ekipamenduak aipatutako elementu guztiak ditu, eta ongi funtzionatzeko moduan daude			0
➤ Gutxienez 4 elementu ditu, edo elementu guztiak ditu baina baten bat zerbitzutik kanpo dago, baina konpontzeko aukerarekin.			1
➤ Oinarritzko ekipamenduko gutxienez 4 elementu ditu, edo baten bat zerbitzutik kanpo dago eta ezinezkoa da erabiltzaileak konpontzea edo ordeztzea.			3
EKIPAMENDUA GUZTIRA			
ETXEBIZITZA EGOERAREN PUNTUAZIOA (Gehienez 10 puntu)			

V.- EGOERA EKONOMIKOA.

Egoera ekonomikoa aztertzeko familiaren hileko gaitasun ekonomiko kalkulatu hartuko da kontuan, zerga ordenantzan ezarritako inguruabarretan. LGSren % 181,70tik behera (1.500. €) 11 tarte ezarri dira; mailaka puntuatuko dira:

Familiaren hileko egoera ekonomikoa BAREMOA	Puntuak	
LGSren %60,57era arte	20	<input type="checkbox"/>
LGSren %60,58 -%72,68	19	<input type="checkbox"/>
LGSren %72,69 -%84,79	18	<input type="checkbox"/>
LGSren %84,80 -%96,91	16	<input type="checkbox"/>
LGSren %96,92 -%109,02	14	<input type="checkbox"/>
LGSren %109,03 -%121,13	12	<input type="checkbox"/>
LGSren %121,14-%132,25	10	<input type="checkbox"/>
LGSren %132,26 -%145,36	8	<input type="checkbox"/>
LGSren %145,37-%157,47	6	<input type="checkbox"/>
LGSren %157,48-%169,59	4	<input type="checkbox"/>
1LGSren %169,60-%181,69	2	<input type="checkbox"/>
=/>%181,70 LGS	0	<input type="checkbox"/>
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (Gehenez 20 puntu)		<input type="checkbox"/>

Bigarrena.- Informazio publikoaren eta interesdunen audientziaren menpe jarri, hogeita hamar egun baliioduneko epean, ALHAOko iragarpena argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea berrikusi ahaliko dute, eta nahi dituzten alegazioak egiteko aukera izango dute.

c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.

Inongo erreklamazio edo iradokizunik egiten ez bada, behin betiko onetsita geratuko da ordura arte behin-behinekoa zen onespena, udalbatzaren akordio berri baten beharrik gabe.

4- Aiarako Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Prezio Publikoa arautzen duen Ordenantza Fiskala. Jarraian, Hirigintza-Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2018ko ekainaren 12an onartutako ebazpenari erreferentzia egin zaio.

Esku-hartzeak bukatu dira eta honakoen aldeko bozkarekin: Iñigo Pinedo Vadillo jn. (EAJ-PNV), José Antonio Bartolomé Pesquera jn. (EAJ-PNV), Montserrat Angulo Solloa and. (EAJ-PNV), Iratxe Parro Uzquiano and. (AIARA BATUZ) Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna (EAJ-PNV), eta honakoen abstentzioarekin: Lauren Uria Peña jn. (EH-BILDU), Nerea Goti Valle and. (EH-BILDU) y Esteban Hernando Landa jn. (EH-BILDU), akordio hau onartu da:

Lehenengoa. - Onestea prezio publikoa ezartzeko eta agintzeko Udal honen etxeko laguntza zerbitzuaren aldi baterako akordioaeta hori arautzen duen ordenantza fiskala, honako hau dioena, hitzez hitz:

AIARAKO UDALEKO ZERGA-ORDENANTZA

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

1. artikulua.- Helburua

Ordenantza honen xedea da arautzea etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoen aplikazioa; hain zuzen ere:

- - Zerbitzuaren erabiltzaileak prezio publikoa ordaintzean nola lagundu behar duen ezartzeko irizpideak.
- - Sortzapenean eta ordainketan aplikatuko diren irizpideak.
- - Prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- - Prezio publikoen zenbatekoak ezartzea, bai eta erabiltzaileen ahalbide ekonomikoaren arabera aplikatuko diren hobariak ere.

2. artikulua.- Eremua

Zerga ordenantza hau etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, bai zuzenean kudeatzen denean, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatzen denean, bai erakunde pribatuekin sinatutako itunen, hitzarmenen edo kontratuen bitartez kudeatzen denean.

3. artikulua.- Ordaindu behar duten pertsonak

1. Hauexek ordaindu behar dituzte prezio publikoak:
 - a) Etxeko laguntza zerbitzua zuzenean erabiltzen duten pertsona fisikoak, baldin eta 1. paragrafo honen b) eta c) letretan aipatutako egoeretan ez badaude.
 - b) Zerbitzuaren erabiltzailea adingabekoa baldin bada, beraren Erabiltzaile helduek legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile baten bitartez jokatzeko badute, araudian zerbitzua jasotzeko baldintzen arabera, ordezkari edo zaintzaile horiek ordaindu beharko dute. Dena den, kasu horietan, ordainketa zordunduko da ordezkariaren pertsonaren errentan edo ondarean, eta zenbatutako ahalmen ekonomikoa izango da pertsona ordezkatuarena.
 - c) Hala badagokio, honako pertsona hauek egindako doako eskualdaketa jaso duten pertsonak prezio publikoa modu subsidiarioan ordaindu beharko dute: erabiltzaileak; artikulua honen 1. zerbakiaren arabera ordainketa egin behar duen pertsonak; edo, 60 urtetik aurrera edo zerbitzu eskaera egin aurretiko 10 urtean, erabiltzailearen ezkontidea izan denak edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman baten bidez erabiltzailearekin lotuta egon den pertsonak -zerga ordenantza honen lehen xedapen gehigarrian harreman hori zehaztu den baldintzetan-. Ordaindu beharrak muga bat dauka: gehienez ere eskualdatutako ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa zorra eskatzen den unean.

I. TITULUA: ERABILTZAILAK PREZIO PUBLIKOEN ORDAINKETAN NOLA LAGUNDU

4. artikulua.- Prezio publiko osoa ordaintzea

1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, etxeko laguntza zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak dagokien prezio publiko osoa ordainduko dute, baldin eta behar besteko ahalmen ekonomikoa badute, eta, edonola ere, prezio hori ordaintzeko beharrezko bermeak egitea eskatu ahal izango zaie.
2. 1. paragrafoan ezarritakoa betetzeko, zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak behar besteko ahalmen ekonomikoa dutela joko da kasu honetan: ahalmen ekonomikoa, zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera zenbatua, II. eranskinean zehaztutako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa denean, zerbitzu mota kontuan hartuta.

3. Prezio publikoa zerga ordenantza honen 3.1 artikuluaaren arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa artikulua honen 2. paragrafoan ezarritako mugen azpitik badago, prezio publikoa modu subsidiarioan ordaintzera behartutako eta 3.2 artikuluan definitutako pertsonetara joko da, erabiltzaileak egindako ekarpena osatzeko, harik eta prezio publikoaren zenbatekoa osorik estali arte, edo prezio publikoa osorik ordaintzeko, baldin eta prezio publikoa 3.1 artikuluaaren arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoak ez badio uzten ekarpenik egiten.

5. artikulua.- Hobariak

1. 3.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzua ordaindu behar duten pertsonak prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik ez badute, II. eranskinean ezarritako mugarik azpitik dagoelako, prezio publiko horien hobariak jaso ahal izango dituzte.
2. Aurreko zenbakian aipatzen diren prezio publikoen hobariak gehikortasun printzipioaren arabera aplikatuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta. Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa zerga ordenantza honen III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatuko da.
3. Artikulu honetan ezarri diren hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean finkatu dira, eta, I. eranskinean finkatu diren prezio publikoak indarrean baldin badaude, aplikagarriak izango dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarri den moduan eguneratzen edo aldatzen baldin badira, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

6. artikulua.- Salbuespen partzialak, erabilera motaren arabera

1. Etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen pertsona batek aldi batez zerbitzua erabil-tzeari uzten badio, etenaldiak ondoz ondoko zazpi egun natural baino gehiago irauten badu, ez du ordaindu beharko prezio publikorik. Horretarako, erabiltzaileek zerbitzua jasotzeari utziko diotela idatziz jakinarazi beharko dute, eta etenaldia hasi baino zazpi egun lehenago gutxienez, larrialdia dela eta ezinezkoa denean izan ezik (behar bezala frogatu behar da). Zerbitzua ondoz ondoko zazpi egun naturalez baino egun gutxiagoz erabili ez bada, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko da.
2. Baldin eta zerbitzu hori aldi berean erabiltzen bada beste zerbitzu batzuekin, ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoan.
3. Zerbitzua eten arren ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoaren ordainketan, baldin eta, zerbitzua eskuratzeko araudiaren arabera, eskatzen den informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra behar baino beranduago betetzen bada, edo prezio publikoa behin eta berriro ordaintzeke uzten bada.

7. artikulua.- Erabilera libreko zenbatekoa

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuko da zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabili den formularen bitartez (hobariak zerga ordenantza honen III. eranskinean ezarri dira).

II. TITULUA SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

8. artikulua - Sortzapena

Araudi honetan arautu dien prezio publikoa ordaintzeko betebeharra sortuko da zerbitzua eraginkortasunez hasten den egunean, eta egun horretatik zerbitzua erabiltzen behin betiko amaitzen den unera irauango du betebeharrak horrek.

9. artikulua - Ordainketa

Zerbitzu batengatik ezarritako prezio publikoa (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein salbuespen partziala daukana) ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da. Kobrantza banku batean helbideratuko da.

III. TITULUA KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK

I. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA

10. artikulua - Ahalmen ekonomikoaren osagaiak

1. Zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan zehaztu denaren arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa kalkulatu behar da, prezio publikoan egingo duen ekarpena zehazteko; horretarako, urteko errenta eta ondarea zenbatu beharko dira, eta kapitulu honetan ezarritako balorazio irizpideak aplikatu.
2. Ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek erabiliko dira:
 - a) erabilgarri dauden azken zerga datuak, betiere, datu horiek aldatu dituen geroagoko gertaera garrantzitsu bat izan ezean. Horrelako kasuetan, datu eguneratuenak erabiliko dira.
 - b) hiriko edo landako ondasunak direnean, ondasun horien balio handiena zenbatuko da, honako hauek kontuan hartuta: katastroko balioa; Administrazioak beste zerga batzuetarako ziurtatu edo finkatu duen balioa; eta prezioa, kontraprestazioa edo eskurapen balioa.

11. artikulua - Errenta

1. Aurreko artikuluan aipatu den ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo diru sarrera zenbakarritzat hartuko dira lanaren ondorioz familia unitateak urtean dituen etekinak eta eskubideak, bai eta jaso ditzakeen beste batzuk ere. Edonola ere, honako hauek:

Funts publikoetan edo pribatuetan zorduntzeko pentsioak edo prestazio ekonomikoak (jasotzen diren diru sarrera gordinak zenbatuko dira). Horretarako, sailkapen horren barnean hartuko dira pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide ekonomiko, zerbitzuaren erabiltzaileak eskubide horiek sortu baditu, artikuluan honen 2. zenbakian ezarritako prestazioak izan ezik.

Norberaren edo besteren kontuan lan egiteagatik lortutako etekin osoak.

2. Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko, errenta zehazteko:

Azaroaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzearenak, ezarritako prestazio ekonomiko finalistak, besteak beste, hauexek: familiakoek eskainitako zaintzarako eta profesionalak ez diren zaintzaileentzako prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa.

b) Honako prestazio hauek (aurreko a) letran ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezaugarriak dituzte):

-- Baliaezintasun handiaren ziozko osagarria, gizarte segurantzari buruzko lege orokorraren testu bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak,

gizarte segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 139.4 artikuluan arautzen duena;

- Gutxienez ehuneko 75eko minusbaliotasun gradua duen 18 urtetik gorako seme edo alabaren bat kargura daukatenezako esleipen ekonomikoaren osagarria, gizarte segurantzari buruzko lege orokorraren testu bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 182 bis 2 c) artikuluan ezartzen duena;

-- Kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzeagatik jasotzen dena, gizarte segurantzari buruzko lege orokorraren testu bateratua onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte segurantzaren arloko berariazko xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 145.6 artikuluan ezartzen duena.

- Hirugarren pertsona baten laguntzaren ziozko sorospena, minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 12.2 c) artikulua arautzen duena, eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena, legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

3. 3. Errenta baloratzeko, erreferentziatzen hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa, 10.2 artikuluan aipatu diren zerga datuak oinarri hartuta. Diru sarreratzat zenbatuko dira honako kontzeptu hauen batuketara:

-- lanaren etekin osoak;

-- lanbide jardueren, enpresa jardueren, eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbiak;

-- egotzitako lanaren errenta salbuetsiak, guztira.

Artikulu honetako 2. zenbakian azaldutako errentaren bat jasotzen dutenek prestazio ekonomiko horien frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko, zenbaki horretan ezarritako ondorioetarako.

4. 4. Hileko errenta kalkulatzeko urteko errenta hamabiz zatituko da.

12. artikulua - Ondarea

1. 1. 10. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ondareztat hartuko dira honako hauek:

a) Azken zerga datu erabilgarriak oinarri hartuta, familia unitateko kideek osorik edo modu partzialean beren izenean dituzten ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak. Datu horiek osatuko dituzte aktiboak buruz eskatuko diren datuek.

b) Ekitaldi batean edo ekitaldi gehiagotan sortu diren kalte ordain edo errenta kapitalizatuak.

c) Erabiltzaileak, beraren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak -zerga ordenantza honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan- edo zerga ordenantza honen 3.2 artikuluan ezarritako baldintzetan ordaindu behar duen pertsonak doan eskualdatu dituen ondasunen eta eskubideen balioa.

2. 2. Honako hauek ez dira zenbatuko ondarea kalkulatzeko:

a) a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa eduki ezean (apartekotzat jotzen dira 300.000 eurotik gorako katastro balioak); etxebizitzaren balioa apartekoa bada, muga horren gaineko kopurua zenbatu behar da ondarean.

Ondore horietarako, ohiko etxebizitzat hartuko dira honako hauek: etxebizitza bera, garajea edota trastelekua; eta, familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada, etxebizitzari atxikita dagoen lur zatia ere bai (bereizita egon ezean).

b) Ondasunen eta eskubideen gainean dauden eta haien balioa murrizten duten zamak eta kargak.

c) Zor eta betebeharrak pertsonalak.

d) Azaroaren 18ko 41/2003 Legearen itzalpean, zeinaren bidez pertsona desgaituen ondarea babesten baita eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatu baitira pertsona horien ondarea babesteko, babes berezia duen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, ondarearen jabeak berak zerbitzua jasotzen duenean izan ezik, pertsonaren beharrianak asetzen dituen heinean, aurrean aipatutako legeko 1.1 eta 5.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira.

3. 3. Ondarearen hileko zenbatekoa kalkulatzeko urteko zenbatekoa hamabiz zatitu behar da.

13. artikulua.- Familia unitatea

1. 1. Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko, familia unitatean honako kide hauek hartuko dira kontuan:

a) zerbitzuaren onuraduna adin nagusikoa bada, familia unitateko kideatzat joko dira:

-- zerbitzuaren onuraduna bera;

-- onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanen bitartez berarekin lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala kreditatuta lehen xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan;

- Adingabeko seme-alabak;

-- 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira eskaera egiten den egunean;

-- ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-23 urte bitarteko seme-alabak.

a) b) zerbitzuaren onuraduna adinez txikia bada, familia unitateko kideatzat joko dira:

-- zerbitzuaren onuraduna bera;

-- onuradunaren gurasoak;

-- beraren anai-arreba adingabekoak;

-- 18 urtetik gorako anai-arrebak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira eskaera egiten den egunean;

-- -- ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-23 urte bitarteko anai-arrebak.

2. Edonola ere, pertsona bat familia unitate bakarreko kide baino ezin da izan.

14. artikulua.- Ahalmen ekonomikoa baloratzeko irizpideak

1. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako batura hau egin behar da: familiaren urteko errentari familiaren urteko ondarearen ehuneko jakin bat gehitu, eta ehuneko horiek aldatuko dira erabiltzailearen adina zein den. Hona hemen:

a) Erabiltzaileak 35 urte baino gutxiago badauzka, beraren ondarearen ehuneko 3.

a) Erabiltzailea 35-65 urte bitartekoa bada, beraren ondarearen ehuneko 6.

a) Erabiltzaileak 65 urte baino gutxiago badauzka, beraren ondarearen ehuneko 20.

2. Halaber, berariazko irizpide hauek aplikatu beharko dira:

a) Pertsona bakarreko familia denean, ahalmen ekonomikoa 1. paragrafoan azaldutakoa zuzenean aplikatuz zehaztuko da.

b) Familia unitatean bi pertsona badaude, prezio publikoa kalkulatzeko (osoa edo hobariduna), 1. paragrafoan azaldutakoaren arabera kalkulaturako hileko guztirako ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80 hartuko da kontuan.

c) Familia unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) idatz zatian azaldu den ehuneko 80ko kopuruari ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.

3. Hileko ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, urteko ahalbide ekonomikoa hamabiz zatituko da.

II. KAPITULUA: EBAZPENA, BERRIKUSPEN ETA EGUNERAKETA

15. artikulua.- Ebazpena

Organo eskumendunaren ebazpenean jasoko da zerbitzuaren prezio publiko osoa, eta hala badagokio, prezio publiko hobariduna ahalmen ekonomikoa zein den.

16. artikulua.- Prezio publikoak ofizioz berrikustea eta informazioa eman beharra

1. Etxeko laguntza zerbitzu zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoak (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein geroratutako kopurua), banaka zein denak batera, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskumendunak, eta interesdunak, beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira. Berrikuspen baten ondorioz jakiten bada prezio publikoa ezartzerakoan kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa aldatu dela, prezioaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, dagokion ebazpen bidez.

1. Horren ondorioetarako, zerga ordenantza honek erreferentzia egiten dion prezio publikoa ordaintzera loturik dagoen edozein zerbitzuren erabiltzaileak -edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak- jakinarazi beharko du, hogeita hamar eguneko epean gehienez ere, gorabeherarik egon den elkarbizitza egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propio edo inoren ondare konputagarrian eta erabiltzaileari esleitutako prezio publikoetan eragina izan dezaketen gainerako inguruabar guztietan.

2. Administrazio eskumendunak jakinez gero zerbitzu erabiltzaile baten ahalmen ekonomikoa aldatu dela, eta ez dela horren berri eman aurreko zenbakian ezarri den bezala, ezarritako prezio publikoa berrikusiko du, eta inguruabar berrietara doituko du. Bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, atzerako eraginez aplikatuko da, egoeran aldaketa hori gertatu zen egunetik aurrera eragina izateko, eta 3.1. artikuluaaren arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak, hartara, epe horretan pilatu diren ordainkizun atzeratuak ere ordaindu beharko ditu.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

3. Ahalmen ekonomikoaren aldaketaren berri eman bazaio administrazioari, eta, administrazio horri lepora dakizkion arrazoiengatik, prezio publikoa 2 hilabeteko epean berrikusi ez bada, honako bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bidegabe ordaindu dituen zenbatekoak itzuliko ditu.

17. artikulua.- Prezio publikoak eguneratzea

Zerga ordenantza honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza bidez eguneratu behar dira; beraz, hurrengo ordenantza horretan ezarriko dira aplikatu beharreko hobariak eta behar besteko ahalmen ekonomikoa.

III. KAPITULUA: PREZIO PUBLIKOENGATIK SORTUTAKO ZORRAK

18. artikulua.- Prezio publikoengatik sortutako zorrak

1. Zerbitzuak sortutako prezio publikoaren ordainagiria -prezio osoa edo prezio hobaridunaitzultzen badu bankuak, zordunari ordaintzeko eskatuko zaio, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio zor duen zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatitzeko eskaera egiteko.
2. Aurreko puntuan aipatzen den epean eskatutako dirua ordaindu ezean, edo ordainketa zatitzeko eskatu ezean, 1. paragrafoan ezarritako prezio publikoa premiamenduko administrazio prozedura bidez eskatuko da.
3. Ez bada ordaintzen ordaindu beharreko prezio publikoa, eta hori behin eta berriz egiten bada, zerbitzua eskuratzeko eskubidea eten ahal izango da.
4. Baldin eta, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren esparruan, egiaztatzen bada zerga ordenantza honen 3.1 artikuluan jasorikoren arabera prezio publikoa ordaintzera behartutako pertsonak lehenago ere zorrak dauzkala ez duelako ordaindu etxeko zerbitzuaren prezio publikoa, eskatzaileari eskatuko zaio kasuan kasuko jakinarazpena jaso eta 30 egun naturaleko epean ordain ditzala zor dituen kopuruak edo organo eskumendunari eska diezaiola zatikatu diezaiola zorra, artikulua honetako 1. eta 2. idatz zatietan jasotzen den bezala.

Pertsonak ez badu errekurritzen zorra ordaintzeko, hurrengo zerbitzuan hasteko eskaeran atzera egin duela joko da, eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Edonola ere, pertsonak zorra ordaindu ahal izango du geroago, bai eta zerbitzuan hasteko beste prozedura bat abiarazi ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren antzeko harremana

1. Maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteei buruzkoak, zehaztu dituen bikoteak ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez lotuta daudela joko da zerga ordenantza honen ondoreetarako. Lege hori autonomietan dago indarrean.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria, edo, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiria aurkeztuta ziurtatuko da harreman hori, lege horren 3. artikuluan araututako baldintzetan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aparteko egoerak

1. Etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, organo eskumendunak zerga ordenantza honetan jasotako partezko hobariak edo hobari totalak zehaztu ahal izango ditu, edo, hala badagokio, zerga ordenantza honetan xedatutako hobarien zenbatekoak, salbuetsitako zenbatekoak eta erabilera libreko zenbatekoak areagotu ahal izango ditu.
2. Seigarren (6) artikuluan aipatutako arrazoiez bestelako arrazoiengatik zerbitzuen erabilera eteten bada, organo eskumendunak plaza gordetzeko prezio publikoaren partezko salbuespenak onartu ahal izango ditu.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.

1. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
2. Zerga ordenantza hau aplikatuko zaie etxeko laguntza zerbitzua data horretan edo ondoren eskuratzen duten pertsonari.

I. ERANSKINA PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Etxeko laguntza-zerbitzua	6,12 €/orduko
---------------------------	---------------

II. ERANSKINA: Ahalmen ekonomikoa nahikoa den zehaztea

I. eranskinetako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da ahalmen ekonomikoa, III. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulaturik, 1.500,00 euro/hil kopurua bezain handia edo hura baino handiagoa denean:

Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakarria 50.000 eurokoa edo hori baino handiagoa denean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturik ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

III. ERANSKINA. HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinetan ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonari honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, zerga ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz:

Etxeko zerbitzuaren banako prezioaren zenbatekoa ordu bakoitzeko kalkulatzeko, honako baremo taula honetako kopuruak ordu bakoitzeko aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	GEHIENEZ ERE (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ ERE	EHUNEKOA
Gehienez ere 500,00	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60

	0			
1.000,00	900,0	2,92	100,00	0,75
	0			
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		6,12 €/orduko

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko orduen kopurua zehaztu behar da, eta horretarako 4,3z biderkatu behar da asteko orduen batura.

Bigarrenena. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, Udaleko iragarkien taulan jarriko den iragarki baten bitartez, hogeita hamar egun baldiodunez, iragarki hori ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; epe horretan, interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute, eta egoki deritzen alegazioak aurkeztu.

Hirugarrenena. Aurrez aipatutako epean ez bazaio espedienteari alegaziorik aurkezten, behin betiko onetsizat joko da, oso bilkuraren erabaki beharrik gabe, Tokiko Ogasunen 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluari jarraikiz.

5.- Ekainaren 28rako, LGTBIQfobiaren kontrako eguna, adierazpen-proposamena.- Jarraian, 2018ko ekainaren 12an egindako Berdintasun eta Immigrazio Informazio Batzorde Soziosanitarioak baieztatu irizpena emandako adierazpen instituzionalaren proposamena jakinarazi zaio Udalbatzari.

"DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 28 DE JUNIO
DIA INTERNACIONAL POR LA DIVERSIDAD SEXUAL Y DE GÉNERO
AYUNTAMIENTO DE AYALA

Un año más, el recuerdo de los hechos acontecidos en el bar Stonewall Inn la madrugada del 28 de junio de 1969, nos vuelve a reunir para reivindicar derechos y en pro del respeto y la convivencia desde la diversidad.

Una fecha a partir de la cual queremos celebrar los logros conseguidos y poner de relieve aquellos aspectos que aún resta por conseguir.

Debemos seguir haciendo hincapié en todos aquellos aspectos que hacen la vida más complicada y difícil a las personas que forman parte del colectivo LGTBI.

Para ello, el Ayuntamiento de Ayala se compromete a, con al resto de poderes públicos, estamentos oficiales y centros educativos, seguir concretando medidas que nos permitan conseguir una sociedad más justa e igualitaria para el colectivo LGTBIQ, considerando como prioritarios los siguientes ámbitos:

- La educación que integre la diversidad sexual y de género, contribuyendo a crear un nuevo ideario en la materia y sienta las bases de una labor preventiva ante el acoso escolar por motivo de orientación sexual e identidad de género.

- La visibilidad de la mujer lesbiana como forma de reconocimiento de su realidad y de legitimidad social, solicitando sean habilitadas aquellas medidas que garanticen el libre ejercicio de sus derechos.

- La visibilidad de todas aquellas sexualidades que, como alternativas al marco heteronormativo e integrantes del amplio espectro de la diversidad, requieren de legitimidad y respeto.

- El derecho a la vivencia de la diversidad sexo-afectiva y visibilidad de sectores de población muchas veces ignorados, como son las personas de la tercera edad y/o con diversidad funcional.

En ese sentido, desde el Ayuntamiento de Ayala:

1. Impulsaremos políticas públicas para la igualdad y la diversidad que garanticen el respeto a los Derechos LGTBI, la lucha contra la LGTBIfobia y la visibilización del colectivo lesbo-gay-trans y bisexual. Dentro de estas políticas, seguiremos participando en el proyecto coeducativo de la Ikastola Etxaurren donde está incorporada la perspectiva de la diversidad sexual y de género.

2.- Trabajaremos por una sociedad basada en el respeto y la convivencia en colaboración con todas las personas y agentes que trabajan para erradicar la homofobia, la lesbofobia, la bifobia y la transfobia.

3. Colgaremos la bandera arco iris en el balcón del Ayuntamiento como símbolo de la lucha por la igualdad del colectivo, demostrando el esfuerzo conjunto de personas, asociaciones, ONGs y poderes públicos que hacen que nuestra sociedad camine hacia la consecución de los derechos humanos para todas las personas. De igual manera, invitaremos a las juntas administrativas del municipio a hacer lo mismo.

4. Repartiremos chapas de la bandera arcoiris entre la población para seguir difundiendo el mensaje de respeto hacia la diversidad.

5.-Organizaremos y coordinaremos actividades para visibilizar y concienciar sobre el colectivo LGTBIQ y animamos a la ciudadanía a participar en ellas.

6.- Se publicará esta declaración institucional en la página web municipal

EKAINAREN 28KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA AIARAKO UDALA

